



Paisaia eraldatzen ari gara

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.
- PLASTIKA.


HELBURUAK

- Gure eguneroko paisaia osatzen dituzten aro ezberdinetako elementuak identifikatzea.
- Paisaia horrek sasoi diferenteetan zehar izan duen nortasunaz jabetzea eta gure lehengo eta gaurko eraginaz eztabaidatzea.

LEHENENGO ETA BEHIN, orrialde batean ikastetxetik edo inguruko ikustoki batetik ikusten den paisaiaren erliebe-lerro nagusiak jasoko ditugu: ortzemuga, mendiak, haranak, ibaiak...

1. Zirriborro horren kopiak egin, ikasle bakoitzak berea eraman dezan.
Zirriborro *biluzi* hori era desberdinetan jantzi edo eraldatu egin da denboran zehar; naturaren eraginez batzuetan, baina gizakion eraginez gehienetan: basoak, hodeiak, animaliak, errekek, errepideak, harrobiak, herriak...
Jar dezagun martxan gure irudimena eta osa dezagun orri bakoitzean marraz eta kolorez arlo bati edo besteari dagokion *argazkia*.

2. Horretarako, aukeratutako ikustokira joango gara guztiok; lau taldetan jarririk, aroak banatuko ditugu. Aroak hurrengo hauek izan daitezke (edo aurretik gelan aukeratutako beste batzuk):
 - a taldekoek: gizakia azaldu baino lehenagokoa.
 - b taldekoek: nekazaritzaren hasiera, lehen etxolak edo herrixken jaiotzea.
 - c taldekoek: industria, errepide, trenbideak eta *asfaltoaren* garaia.
 - d taldekoek: etorkizunerako nahiko genukeena.
3. Gelan bildu eta hausnarketari ekingo diogu:
 - Zertan dira berdin edo ezberdinak gure *argazkia* eta egun aurrean dugun paisaia?
 - Zer irabazi edo galdu da batetik bestera?
 - Zer proposatuko genuke? Nola bidera ditzakegu geure proposamenak?



Zirriborroa, nahi dugun bezain zabal izan daiteke.



A taldea. Gizakia azaldu baino lehenagoko landaretzari zein faunari buruzko dokumentazioa bila dezakezue.



B taldea. Historiaurreko ikuspegi honetan, geure subkontzientearen zine eta telebista irudimenaz ohar gaitzek.



C taldea. Asfalto eta komunikabideen garaia. Nahiz eta itxuraz aldatu gabeko paisaia bat aukeratu, gizakiaren aztarna beti egoten da atzean.



D taldea. Etorkizunari buruzko ikusmoldeak eztabaida handiagoa piz dezake. Etorkizuneko paisaia oraingo erabakien menpe dago.